

GURE HERRIA



AURKIBIDEA

Les Pastorales Basques et leurs rapports avec l'Eglise..... G. HÉBELLE.
 Egoaldetk..... E-TAN S.
 Silbonelles Basques : Une Perquisition..... MAYI ELISSAGHE
 Sempelarren Desafioa..... JOASTIPI ETIOLEKUA
 La Bibliothèque de Silvain Fontreau (fin)..... JULIEN VINSON.
 Erreboleko jokoa..... JEAN ELISSALDE
 LOUIE DARRANGE
 Le Texte Basque de Rabelais (Deux Interprétations)..... J. S. P.
 Halako Anderes eta beten idarikoer perloa herrietan et bitz..... MAN. KICHAMENDY

Arranoa eta Olsoa..... HARRICHABAL
 La Ferronnerie d'Amesnabar (BUIE)..... P. LUANDE.
 Libolik bast eta..... OXONI.
 Haurren Chokoa : Akerraren kantuak..... X.
 Page des Anciens : Olhoitça..... X.
 Le Basque à l'Université de Bordeaux..... ADITZALE.
 Habelakoa..... L. A.
 Bertzen Irakurgaietan..... OXONI.
 Lili bat ikusi dut — Gerla Ondean
 Paroles de..... X. et J. BARRIER
 Musique et Harmonisation de NEHOR et G. DULAU
 Anderia Gorarik Zauda ?
 Paroles de..... X.
 Musique et Harmonisation de NEHOR et G. DULAU

SEMPERTARREN DESAFIOA



ZER putikoak!... Zer aitzinekoak!.....
— Zer mirakulu duzu gizona?... Zer egin dautzute?
— Zer egin dautaten?... Niri, deus ere, bainan bertze norbeiten bizkarrak balakike.....
— Bainan gizona, errazu bada nor.....
— Nor? Ez duzu sekula santan asmatuko nor... Putikoño hek nor diren? Ori, ez da egia bezalakorik... Sempertarrak.
— ?!
— Bai jauna, Sempertarrak. Nahi tutzu izenak eta oro? Huna.

*
**

Seguenze los nomis e cognomis dous Vascos qui an desfidat los qui eren dou mestir dous doalers ; losquoaus bascos son compainhons de Mossor Johan de Sent Per en le maiorie dou Sr En Bortholomiu de Lesbay, l'an miu quate centz e quinze.

Tot prumeiremens, Ancho, filh de Cheme qui fo, Michel son fray, Periz, son fray.

Item Pernaud Saldo.

Item Adamaco, filh de Jaurreguissarre.

Item Johangote, filh d'Anstoe.

Item Errautz.

Item Steuen, filh de Silhoague.

Item Dihitz.

Item Ancho d'Amespetu.

Item Johan Santz. (1)

*
**

Horra ez nuenetz egia.

Hameka gizon, Baiona-ko barrika egileri desafio baten egitera etorriak, duela bortz ehun eta sei urthe!

Zer ote zuten elgarren artean churitu beharra? Begiak

(1) *Livre des Etablissements*, n° 423. Défi porté aux tonneliers de Bayonne par les Basques de Saint-Pée, Compagnons de Johan de Sent-Per, en l'an 1415.

2
—

zabaldurrik egona niz, ustez liburu zahar horren zokoe-
tarik argitasun zerbeit aterako nuela. Bertzelako cheheta-
sunik ez dut atzeman. Bistan da zinez ari zirela gure gi-
zonak, eta etzutela Baiones langilen beldurrik, beren ize-
nak utzi diozkatenean herriko etchean zabal zabala!

Emazue hor, mutikoak!

Berak ere barrika egile zirenetz, gogoeta egona niz,
eta, gero, ur hegiko ostatu zahar hetan Baionan zilkoa
beroturik, Baiones langileak baino gehiago zirelako
solasak erabili heiekin.

Edo indarrez zoin zoinen nausi gelditzea jakin nahiak
ote ziren? Orduko urhatsen berri dakienak, aise sinetsiko
du holako zerbeit zuketela beren auzia.

*
**

Lapurtarrak mende hetan Baionari aiher zauden, ba
eta Baiona Lapurtarreri.

Hamalagarren mendearen hastapenean, hiritarrek hitzar-
tu zuten elgarrekin baserritarren ausartzia guzier jazartzea,
batak bertzea lagunduz: zauri handiak ateratu ziren hortik.

Bertzalde Baiona-ko auzapez eta bertze gizonek mende hor-
tan, zazpi ahalak egin zituzten Lapurtarren lurretan eta zuze-
netan sudurraren sartzeko gero-ta barnago. Sempereko ai-
toren semeak azkarki jazarri zitzaizkoten, bertze askorekin.

Azkenean Baionako auzapez bati gogoratu zitzaion
Lapurtarren zapatzea sekulakotz.

Milafrangako pestak ziren, agorrilaren hogoi ta laua, San
Bartolome; urtea, 1343. Pesta hoitara bildu ziren Miotz-eko
jauregian Lapurtar aitoren seme gehienak; Semperekoa
ere hor zen, Gilamu Eñaut, Sancho bere koinatarekin.

Norbeitek igorri laster gutun bat Baiona-ko auzapezari
hitz hauk azken: « *Pés de Puyane, heis quent pots, no sas
pas quent sera ops.* Pes de Puyane, egik ahala dukanean;
ez dakik beharra noiz dukeian. »

*
**

Oren baten bidea zen Baiona-tik Miotzera. Hiritarrak

3

burrustan sartu ziren jauregian, bazkaltiarren erdira: Lapurtar guziak garbitu zituzten, salbu bortz; hautarik bat, Gilamu Eñaut, Semperekoa. Bortzak ereman zituzten Errobi bazterrera eta zubiko harroineri estekatu, ura goiti zoalarik: handik laster ura guziek buruaren gainez gain igana zuten.

Hogoi urtez, sekulako nahaskeriak gertatu ziren Lapurdin. Hiritarrik etzen haizu gehiago auzo herrietan; Baionas guziak kalituak ziren, ager orduko. Hala hala Lapurtarrak ere Baionan.

Azkenean Lapurtarrek irabazi auzia: bortz ehun urhe peza eskuratu zituzten, bai eta ere beren zuzenak ezagutarazi gisa guzietara: Baiona-tik nahi zutena zeramatzen handik goiti, hiriari deus eman gabe ateratzea sari, buruz, bizkarrez, aberez ala untziz, kurutzearen gainean zin egirik hiri zaineri berentzat zituztela, eta ez saltzeko.

Gehiago dena, Baionesek utzi zuten dirua, Sempertar eta bertze aitoren seme ithoen arimen onetan mezak eman-arazteko. Ez da beraz mirakulu, handik zenbeit urteren buruan Sempertarrak burua chut baitzabiltzan Baionan gaindi, desafioka!

*
*
*

Zer ere baitzuten barrika egile heiekin, ederki egin zuten beren izenen uztea. Gizonak ziren. Panpakorik utzi zutenetz Baionesen bizkarrean, Baionesek ez daukutesalhatu.

Bego hortan. Egun bertze desafio bat helarazia dute Sempertarrek Baionara. Zer uste duzue?

— Pleka?

— Ez.

— Kontrebandan?

— Fa!

— Kantuz?

— Boo!

— Koplaka Mattinekin?

— Beautzu hortik!

- Zer bada ?
— *Gure-Herriaren* irakurtzen nausi direla ! »

JOASTIPI ETCHELEKU



5

Cliché Mialet.

Sempertar hetarik ote da hau ?

